

2018ko URRIAK 3ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeke Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hemezortziko urriak hiru.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jule Aranburu Mariezkurrena.
Asier Aguirre Murguiondo.
Xabier Aranburu Altuna.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Ion Mujika Perez.

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Julen Zabala Garcia.

IDAZKARIA:

Iñaki Alonso Antolín.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Eguerdiko ordubiak.

AMAIERA ORDUA: Eguerdiko ordubi tèrdiak.

1.- Aurreko aktaren onespena.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako akta irakurri ondoren, 2018-07-27 aho batez onartzen da.

2.- Alkatetzaren Ebazpenak.

Jarraian Idazkariak, aurreko ohiko Bilkuraz geroztik egon diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du. Honakoak dira:

- Nagore Aguirreurreta eta beste biei Telleri-Berri baserriko fatxada berritzeko obra baimena emanaz.
- Ana Aramburu Altunari Urteaga-gain baserrian Simaurtegia legeztatzeko eta biltegi berri bat eraikitzeko obra baimena emanaz.

3.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

4.- 2018/04 Aurrekontuaren kreditu aldaketan onarpena.

2018/04 Aurrekontuaren Kreditu aldaketa ikusita eta Udal Idazkariak egindako txostena kontutan hartuta, aho batez hasierako onarpena egiten da. 2018/04 espedientea kreditu gehigarriak onartzeko da. Espediente hau jendaurrean jarriko 15 eguneko epean. Erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, beste akordiorik hartu gabe, behin betiko onartutzat emango da.

Aldaketa hauek dira:

2018/04 ESPEDIENTEA:

Gehikuntzak:

622-15100-01	Plazako etxebizitzaren obra	353.312,00
--------------	-----------------------------	------------

FINANZIAZIOA:

870-01	2017ko Altxortegi gerakina	7.661,18
559-01	Cespa: isurketaren kanona	345650,82